

E Eguna

Honako hau dut bosgarren urtea, oker kalkulatzen ez badut, abenduaren hiruko batean hemen idatzi behar dudana. Erreparatu diot guztietan Euskararen Egunari heldu diodala, batzuetan ironiatik, beste batzuetan gaur bertan ospatzen diren beste nazioarteko egunak

(Nafarroakoa, elbarri jendearena edo hiru dimentsioena) ere aintzat hartuz, baten batean zuzenean eta seriooki, gaiak eskatzen duen gogoeta arretatsuaren ondoren, ohiko topikoetatik ahalik eta urrutien mantentzen



JIRA
Angel Erro

saiatuz, jakinda seguruenik ez naizela iritzilari bakarra gaur honetaz arituko dena. Ez dut berdin jokatzeko garrantzi handikoak ere badiren beste (nazioarteko) egun batzuekin. Maiz txandapasa egiten diet. Euskarari ez. Erraza litzateke zergatik erantzuten. Baina ez dirudien bezain begien bistakoa.

Euskarari zutabe bat (urtero zutabe bat esatera nindoan, baina horri gehitu behar zaizkio urtean zehar idatzitako zutabe intzidental ugari) idazteak ez du inor asaldaten, kritikoa izan ala koipetsua; euskarazko egunkari bakarrean esperatzekoa da. Ospa dezagun bai, euskararen eguna, baina ongi ahantzi gabe horren behar handirik ez duela egunero euskaraz jarduten duenak. Erdaraz idatzi beharko genituzke gaurko artikulu eta zutabeotako asko. Ez hemen.

Ar, er, ir, or, ur

Euskara putzu sakon eta ilun bat zela zioren lehen. Lehen, zu beti «lehen» eta «lehen»; lazatandu nazazu orain, ar, er, ir, or, ur urdinen artean. Zaude, eta entzun iezadazu zelan ur, or, ir, er, Arantzazu izan zuen gordeleku; euskal hotz eta hitzen, *triku*-en eta *sagarroi*-en, *erroi*-en eta *bele*-en babesleku. Bai, badakitz neuk ere *zai*, *zoi*, *bele* esaten, *arma*, *tiro*, *pun*; isiltzen banaiz, ez da hitzik ez dudalako. Ba, bertze jendeak usete zuten ezin eskriba zaiten. Bertzeak... ai, gure «batzuk»-ak eta «bertze»-ak! Batzuk herria



BIRA
Miren Amuriza

maite, euskaraz ahantzi; bertzek euskara maite herria gaitzetsi... Bada garaia noizbait dezagun guda hori galdo irabaz. Zeren, hemen, euskaraz ez dakienak, berak jakingo du zergatik ez dakien. Aizu, nik ez daukat kulparik ez banaiz abila; hau da hau makila, aditz klase pila, hitzak beste mila... esaten dute baina ez da hain fazila! Barka, lagunduko dizut nahi baduzu: do, re, mi, fa, sol, la, si, do; *¡bienvenida, bienvenida!*; euskaraz «kabia» esaten da, gazteleeraz, «nido». Eskerririk asko, *shukraan. Mina nujal la ta keliu garabia* Rabat; arraroa litzateke, noski, arabiera gabe Rabat. Eta hau ere ez al litzateke arraroa? Euskararik gabe Nafarroa? Euskara da, izan ere, gure terriorio libre bakarra; nire ama hizkuntza, zure hizkuntza alaba. Bagare, bagera, bagire, bagara nor ar, er, ir, or, ur urdinen artean: aurpegi biluziak herri hau sortzen, euskaratik eta euskaraz.

Gure Txillardegia

Pako Aristi
Idazlea

Euskararen eguna benetan ospatu nahi luketen guztiei gomen datu nahi diet Pako Sodupek maisuki Txillardegiri buruz idatzi duen liburua, honek Euskal Herriari egin zion ekarpen sakona jaso, ikertu eta dosi zehatzetan eskaini diguna: *Txillardegiren borroka abertzalea*. Haratago joanda, egun honek urtero idazle bati dedikatua behar luke egon, haren obra ezagutzera eta (garrantzitsuago dena) irakurtzera emana izan dadin. Egun seinalatuekin beste modu batera joka liteke, hain da urria jendeak bere kulturaz eta hizkuntzaz ezagutzen duena!

Lan handia, ongi egina eta modu ezin interesgarriagoan aurkeztua da Sodupekin egin duena, Txillardegik etengabe idatzen eman baitzuten bere bizitza, testuinguru sozio-politiko bakoitzari erantzunez. Gaztetako Txillardegia da, zentzu horretan, zorrotzena, garaiko giro politikoan ere gauzak gaur baino argiago zeuden seinale edo. Zer zen hura! Ez pertsona bat, hiru baizik, gutxienez. Berak aipatzen du 1976ko testu batean, Iparraldeko bizitza lasai eta europarra utzi eta Hego Aldeko borrokaletara itzultzea erabaki zuenean: «[...] *Larresoro* hemen geldituko da aurrerakoan, Iparralde honetan, Kanbo-alde baketsu horretan, urte luze hauen lekuko mutua. Txillardegia, berriz, antigaur ezaguna, hor doakizue, ene aurretik, mezulari, herri-zulo madarikatu horretan burrukan segitzeko gertu; ondotik ni neu ere zuen artera agertzeko esperantzaz». Eta zehaztu zuen euskal intelektuaren papera: «Zer egin behar du euskaldun intelektuala? Gure herria barnetik eta sakonki ezagutu: gaurkoa eta atzokoa. Intelektual batek argi egiten lagundu behar du, eta huntarako bere herria eta bere mendea ezagutu behar ditu: ezagutu, maitatu eta nor-tu».

Liburuak, bere horretan, sentipen gazi-gozoak sortzen ditu, ilusio zapuztuen kronika bilakatzen da, eta bere bigarren zatian, Txillardegia zahartzen doan heinean, ezintasun baten ispilu, berea eta kolektiboa dena, ezin kokatu bat, sigla asko, iritzi kontrajarriak, ezer aportatzen ez duten joan-etorri estrategikoak, eta nahasmen ideologikoak; azken batean, herri honen askatasu-

naren helburua lortu ez duenaren eta ezin duenaren etsipen eternala. Baina orriotan ikusi dugu nola saiatu den bere bizitza guztian handik edo hemen-dik menpekotasun hegemonikoari arraildurak aurkitzen, irmotasuna puskatzen, sarritan bertako kolaboratzaileen aurka.

1978an utzi zuen definizio antologikoa, etorkinen inguruan piztutako polemika baten harira, euskaldun nor den eta nor ez erabakitzeko: «Euskalduna da, Euskadin bizi eta lan eginda, gure herria bere egiten duena». Eta Sodupekin egiten dion iruzkina: «Plan-teamendu horietatik hain urrun sumatu dugu gure herriko iritzi publikoak, ezen irakurtzeak bakarrik harri-dura sortzen baitu».

1980an 35 urtez aurreratu zen gaur independentziaren ideologo batzuek diotenari, euskara ez ote den galga indarrak biltzeko orduan: «Oraindik pentsatzen dugu, edo pentsatzen dute batzuek, kontu linguistikoa galga dela. Hori faltsua da. [...] Planteamendu linguistikoa ez du zertan izan apolitikoa, lotsatia, askotan esan den moduan; erabat planteamendu politikoa izan behar du».

Aurreratu zen, baita ere, gaur ia inork zalantzan jartzen ez duen sistema autonomikoa gure herria asimilatzeke tresna huts bat baino ez dela kritikatzera. 1975ean gobernu probisional baten ideia plazaratu zuen: «Euskal Herriak ez dauka oraindik erakunde abertzale bat, ez klandestinoa, ez exilioan, Madrilen euskal alternatiba bat inposatzeko gai dena, Hego Euskal Herriko indarren sostengurekin.

*Euskal gobernu*a deritzana, gaur egun eratu dagoen bezala, ez da. Hilabeteak badoaz, urteak badoaz; eta *Euskal Erakunde Goren* ospetsu hori, beste askoren artean Enbatak eskatu duena, ez da agertzen inondik ere. Norena da errua?».

1997an ere berretsiko du autonomismoaren amarrua: «Azkeneko hoge urte honetan Hegoaldean, Madrilen onepinarekin eraiki den tramankulu autonomikoa helburu hau dauka: trauma mingarririk gabe, poliki-poliki, ikurriña balkoi ofizialetan eskegita, Hego Euskal Herria Espainian integratzea. PNVa, Madrilen beharrezko laguntzaile bihurtu da. Madrilere berak egin ez dezakeena, jelki-deek egiten diote [...]».

2000. urtean berretsiko zuen mesfidantza: «[...] Nik uste garaia dela saio politikoa bat egiteko; baina ez politika parlamentarioa (hori behar bada egin dezatela, baina nik ez dut horretan si-

nesten), baizik eta desobedientzia zibilaren politika, gandhismoa: masiboa, gogorra». Baina 2002an Aralarren afiliatu zen, zeinak parte hartzen zuen ahal zuen erakunde guztietan. 2007an dimisioa eman zuen, eta 2008an EAE-ANV alderdiko kideekin hedabideen aurrean agertu zen, Espainiako hautetskunderatarako hautagai-zerrenda aurkezten.

Halere, ez zuen inoiz bistatik galtzen gure herriaren arazoa zein zen. Hau dio 2005ean: «Euskal arazoa beste hau baita: orain dela bost mende, herri hau zapalduta bizi dela. Eta vascongado/navarro/vasco-frances zatiketa hirukoitzak geure hondamendirak garmatzala. Ongi dakite, era berean, hemen hispano-frantses legetasuna gerra bidez inposatu zela behin eta berri. Euskal herriak bizirik iraungo badu, Auto-determinazioa eta Independentzia behar ditugu [...]».

Nik esango nuke ezin dela Independentzia defendatu, eta era berean independentziaren uko nagusia den sistema autonomikoa defendatu, eta Txillardegia agertu zuela, bere konpromisoaren auzardiaz beti ere, herri honen heldutasun estrategiko batera iristeko daukan ezintasun guztia.

Baina Txillardegia irakurtzeak denok inplikatzeko gaitu bete-betean herri honen etorkizunaren aurrean. Iragan uztailean, BERRIAN, honela titulatzeko zuten Dani Goñik artikulu bat: «Ai Txillardegia, zer egin huen horrela tratatua izateko?». Bertan kontatzen zituen Donostiako Udal Liburutegiari Txillardegia izena jartzeko egin zituzten gestioak, eta hara non aurkitu zuten hitz magikoaren murraila: kontsentsua. Eta zabalda, gainera. Eta nola PSEk piktura bidali zituen, etsipenaren galbidean geratu da egitasmoa. Gaiak, ordea, gu interplatzen gaitu, eta honela behar luke izenburuak: «Barka Txillardegia, zer egin dugu guk zu horrela tratatzeko?». Gu gara bere lekua errebindikatzen jakin ez dugunak, ardura-dun sare itzela osatu arte, Euskaltzaindiatik hasita, eta gure ahuldade politikoa da omenaldirik kaskarrena.

Zer egin zuen Txillardegik? Lana gotik, eta herri honen askatasuna desiratu. Hustu zuen bere garuna, eta katarsi horren olatuek denok bustitzen gaituzte. Espainolismoak ez du maite, lana ondo egin zuen seinale. Gu gara, orain, espainolismoa garaitu behar dugunak. Jose Luis Alvarez Enparantza, gure herriaren ispilu, zer ikasi, zer pentsa ugari eman zigun gizona, baita zer ahaztu, gainditu eta arbuaitu ere.